

188/19 PRENTSA OHARRA

DBUSEN ZERBITZUAK ABENDUAREN 24AN ETA 25EAN

Gabon Gaua eta Eguberri Eguna direla eta, Dbusen autobusen ordutegietan ondorengo aldaketak egingo dira:

➤ **Abenduaren 24a, asteartea: Gabon Gaua**

Asteartean, abenduaren 24an, Gabon Gaua dela eta, Dbusen linea guztiek 20:00ak eta 20:30ak artean amaituko dituzte zerbitzuak. **Gauean Gautxori zerbitzuak** egongo dira 00:30etik 5:00etara gutxi gorabehera. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

➤ **Abenduaren 25a, asteazkena: Eguberri Eguna**

Asteazkenean, abenduaren 25ean, Eguberri Eguna dela eta, zerbitzuen ordutegietan aldaketak egingo dira. Kontsultatu ordutegien informazio guztia atxikita doan dokumentuan.

OLENTZEROREN ETORRERA HIRIRA

Abenduaren 23an eta 24an Dbusen zenbait lineek geltoki aldaketak egingo dituzte Olentzeroren etorrera dela eta.

OLENTZEROREN ETORRERA AUZOETAN

Astelehena, abenduaren 23a - Antiguoa:

➤ **5. BENTA-BERRI LINEA, 19:00etatik 21:30era**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira:** Zumalakarregi 10, Anbulatorioa, Irakasle Eskola, Unibertsitatea, Tolosa Hiribidea 112 eta 138.

Asteartea, abenduaren 24a - Antiguoa:

➤ **5. BENTA-BERRI linea 11:00etatik 13:30era:**

Matia kalearen itxiera dela eta, Matia, Benta Berri, R.M. Azkue, R.M. Azkue 32, Zarautz Hiribidea 90 eta Zarautz Hiribidea 122 **beste geltoki hauetara lekualdatuko dira:** Zumalakarregi 10, Anbulatorioa, Irakasle Eskola, Unibertsitatea, Tolosa Hiribidea 112 eta 138.

Asteartea, abenduaren 24a - Bidebieta:

- **14. BIDEBIETA** linea 17:15etik 19:15era:
Bukaerako geldialdia egingo da Juan XXIII geltokian. Honako geltoki hauek zerbitzurik gabe geratuko dira: Julio Urkijo kaleko bi geltokiak eta Serapio Mujka. Juan XXIII-ra lekualdatuko dira.

Asteartea, abenduaren 24a - Trintxerpe:

- **38. TRINTXERPE-ALTZA-MOLINAO** 18:00etatik 20:30era:
Euskadi Etorbidearen itxiera dela eta, Euskadi Etorbidea 5 eta Euskadi Etorbidea-Azoka geltokiak **lekualdatuko dira:** Euskadi Etorbidea Portualdea bidegurutzean.

OLENTZEROREN ETORRERA ERDIALDEAN

Asteartean, **abenduaren 24a, 17:45etik 20:00etara** gutxi gorabehera:

- **5.BENTA BERRI eta 25.B.BERRI-AÑORGA**

Artzain Ona, Okendo, Boulevard eta Zubieta 14ko geltokiak San Martin 37ra lekualdatuko dira.

- **16.IGELDO eta 18.SEMINARIOA**

Artzain Ona, Okendo, Gipuzkoa Plaza eta Zubieta 14ko geltokiak San Martin 37ra lekualdatuko dira.

- **19. AIETE-BERA BERA**

Artzain Ona, Okendo, Gipuzkoa Plaza eta Urbieta 6ko geltokiak Urbieta 38ra lekualdatuko dira.

- **21.MUTUALITATEAK-ANOETA, 26.AMARA-MARTUTENE eta 28.AMARA-OSPITALEAK**

San Martin 25, Okendo, Boulevard eta Urbieta 6-12 geltokiak zerbitzurik gabe geratuko dira, eta Urbieta 30era eramango dira.

- **8.GROS-INTXAURRONDO, 9.EGIA-INTX, 29.HEGO INTX-SUR eta 42.ALDAPA-EGIA**

Linea hauek Legazpi kalean egingo dute amaiera geltokia. Hemendik Idiakez kaletik joango dira, Askatasunaren Hiribidea 7an geltokia eginez (14 linearen geltokia). Boulevard eta Askatasunaren Hiribidea 15 geltokiak bertan behera geratuko dira.

- **13.ALTZA**

Ohiko geltokia egingo du Boulevardean. Ondoren Legazpi eta Idiakez kaletik igaroko da, Askatasunaren Hiribidea 7an geltokia eginez.

➤ **31.INTXAURRONDO-OSPITALEAK-ALTZA**

Aiete alderantz, Boulevardeko geltokia Gipuzkoa Plazara lekualdatuko da (14 linearen geltokia). Boulevard eta Urbieta 6 geltokiak bertan behera geratuko dira, eta Gipuzkoa Plazara edo Urbieta 38ra eramango dira.

➤ **33.LARRATXO-INTX-ANTIGUO-BERIO, 40-GROS-ANTIGUO-IGARA**

Askatasunaren Hiribidea 18ko eta Zubieta 14ko geltokiak Easo 27ra (Telepizzaren aurrealdean) eramango dira.

➤ **36.SAN ROKE-ALDAKONEA**

- San Roke alderantz: Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak Gipuzkoa plazara (14 linearen geltokira) eta Urbieta 38 lekualdatuko dira.

- Aldakonea alderantz: San Martin 25 eta Askatasunaren Hiribidea 19 geltokiak Askatasunaren Hiribidea 3ra lekualdatuko dira.

➤ **37.RODIL-ZORROAGA**

San Martin 25 eta Askatasunaren Hiribidea 21 Askatasunaren Hiribidea 3ra lekualdatuko dira.

➤ **45.ESTACIONES RENFE-BUS GELTOKIAK-ANTIGUO-AIETE**

Askatasunaren Hiribidea 18ko eta Zubieta 14ko geltokiak Easo 27ra (Telepizzaren aurrealdean) eramango dira.

➤ **46.MORLANS**

Bizkaia Pasealekua, Gernikako Arbola, M^a Cristina Zubia, Askatasunaren Hiribidea 20 eta Urbieta 6 geltokiak Urbieta 38ra eramango dira.

Informazio gehiago www.dbus.eus webgunean eta 943 000 200 telefonoan.

